

AEBko National Academy of Inventors-ek aintzatespena egin dio CIC biomaGUNEko ikertzaile Maurizio Pratori

National Academy of Inventors (NAI) erakundeak NAI Fellow izendatu du Maurizio Prato, hainbat alorretan zientziaren aurrerapenean egin dituen ekarpenengatik

Bizi-kalitatean, garapen ekonomikoan eta gizartearen ongizatean eragin nabaria duten asmakizunak aitortzen ditu izendapen honek

Donostian, 2021eko abenduaren 7an. AEBko National Academy of Inventors® (NAI) erakundeak 2021eko NAI Fellow izendatu dituen 164 asmatzaile akademikoen zerrenda argitaratu berri du. Asmatzaile horietako bat da Maurizio Prato, CIC biomaGUNEko [Karbonoaren Bionanoteknologia](#) taldeko ikertzaile nagusia, [Ikerbasque](#) irakaslea eta [AXA Chair](#) dena. Pratok bere ibilbide osoan lortu dituen asmakarietan oinarritzen da aintzatespen hau; izan ere, urteetan, ekarpen handia egin dio zientziaren aurrerapenari, hainbat alorretan egindako asmakizunekin. Haien guztien artetik, "[Prato erreakzioa](#)" nabarmendu beharra dago: fullerenoak, karbono-nanohodiak eta grafenoa funtzionalizatzeko balio duen erreakzio kimikoa da, eta material horiekin lan egiten duten mundu osoko zientzialariek erabili dute, askotariko aplikazioetarako (eguzki-zelula berrietatik hasi, eta gailu medikoetaraino).

Bizi-kalitatean, garapen ekonomikoan eta gizartearen ongizatean eragin nabaria duten asmakizun garrantzitsuak sortzeko edo bideratzeko jarrera berritzailea dutela erakutsi duten asmatzaile akademikoak aitortzen ditu NAI Fellows programak. Asmatzaile akademikoei bakarrik ematen zaien aintzatespen profesionalik garrantzitsuena da NAI Fellow-en aitortzea. Orain arte, NAI elkarteko kideak AEBko 48.000 patente baino gehiagoren titular dira; horien guztien artean 13.000 teknologia eta enpresa lizentziadun baino gehiago sortu dituzte, eta milioi bat lanpostu baino gehiago. Gainera, NAiko kideen aurkikuntzekin lotuta, 3 bilioi dolarretik gorako diru-sarrerak lortu dira.

2021eko NAI Fellowen promozioa mundu osoko 116 ikerketa-unibertsitate eta ikerketa-institutu irabazi-asmorik gabeko eta publikotako ikertzaileek osatzen dute. Promozio honetako kideen artean Zientzia, Ingeniaritza eta Medikuntzako zenbait akademia nazionalak 33 kide daude, eta hiru Nobel saridun, beste ohore eta goraipamen batzuez gainera. Halaber, haien ikerketa- eta ekintzailetza-lanek jakintza-arlo zientifiko ugari ukitzen dituzte, zeinak lotuta baitaude asmakizunak gizartearen onurarako egokitzeko transferentzia teknologikoarekin.

2021eko NAI Fellowen zerrenda osoa [hemen](#).

Maurizio Pratori buruz

[Maurizio Prato](#) Paduako Unibertsitateko Kimika Organikoko Sailean hasi zen 1983an; 1992an, Triesteko Unibertsitateko Farmazia Fakultateko Kimika Organikoko irakasle elkartu izendatu zuten, eta irakasle titular izatera iritsi zen 2000n. 2015etik, CIC biomaGUNE ikerketa kooperatiboko zentroko Ikerbasque ikerketa-irakasle eta AXA ikerketa-irakasle da. ERCren bi laguntza garrantzitsu jaso ditu, 2008an eta 2020an. Horrez gainera, Accademia Nazionale dei Lincei-ko kide

izendatu zuten 2010ean; Europako Zientzia Akademiako kide 2013an; Europako Akademiako kide 2015ean, eta Istituto Veneto di Scienze, Lettere ed Arti-ko kide 2018an. 2013an, bestalde, Xi'ango Jiao Tong Unibertsitateko ohorezko irakasle izendatu zuten (Txina). Texasko Unibertsitate Teknologikoan aritu da ikertzen, Lubbocken (1980); Dublingo University Collegen (1983); Yaleko Unibertsitatean (1986-87), eta Kaliforniako Unibertsitatean, Santa Barbaran (1991-92). Irakasle gonbidatua izan da zenbait unibertsitatetako kimika-sailetan: Pariseko École Normale Supérieuren (2001), Namurreko Unibertsitatean (Belgikan, 2010ean), Estrasburgoko Unibertsitatean (2014), eta Monseko Unibertsitatean (Belgikan, 2018an), *Françqui katedraren* titular gisa. Salentoko Unibertsitateak "Bioteknologia Medikoa eta Nanobioteknologia" alorreko ohorezko titulua eman dio berriki.

National Academy of Inventors erakundeari buruz

[National Academy of Inventors](#) AEBko eta nazioarteko unibertsitate eta ikerketa-institutu irabazi-asmorik gabeko eta publikoetako kidez osatutako erakundea da; 4.000tik gora pertsona asmatzaile eta Fellow ditu, mundu osoko 250 erakunde baino gehiagotakoak. 2010ean sortu zen AEBko Patenteen eta Marken Bulegoak (USPTO) emandako patenteen jabe diren asmatzaileak aitortu eta sustatzeko, teknologia eta berrikuntza akademikoen ikusgarritasuna hobetzeko, jabetza intelektualaren dibulgazioa sustatzeko, ikasle berritzaileak hezi eta bideratzeko, eta erakundeko kideen asmakizunak gizartearen mesedetan erabili ahal izateko.

CIC biomaGUNEri buruz

CIC biomaGUNE biomaterialen alorreko ikerketa kooperatiboko zentroak, zeina Basque Research and Technology Allianceko ([BRTA](#)) kide baita, punta-puntako ikerkuntza egiten du Kimikaren, Biologiaren eta Fisikaren arteko eremuan, eta arreta berezia jartzen du nanoegitura biologikoen eskala molekularreko propietateetan, bai eta haien aplikazio biomedikoetan ere 2018an, "María de Maeztu" Bikaintasun Unitate izaera aitortu zioten bikaintasun-baldintzak betetzeagatik, zeintzuen bereizgarri baita dagokion jarduera-esparruan inpaktu handia eragitea eta lehiakortasun-maila handia izatea mundu mailako zientzian.